

191. araua

Artelanen izenak. Historiaurreko eta Antzinaroko artelanen izenak

(Euskaltzaindiak 2018ko azaroaren 23an, Donostian, eta 2019ko uztailaren 19an, Bilbon, onartua)

Arauaren zergatia

Euskaltzaindiaren Hiztegiaren arabera, hau da artea:

- **arte.** Gauza ederrak sortzea helburutzat duen giza jardunbidea; musika, pintura, arkitektura eta kideko lanen (literaturazkoak izan ezik) sorketa.

Eta hau da *artelana*:

- **artelan** iz. Arte alorrean onduriko lana.

Munduko artelanak euskaraz adierazteko orduan, zalantzak izaten dira batzuetan: zer euskaratu behar den eta zer ez, nola euskaratu, letra larriak noiz erabili, letra etzanak erabili edo ez...

Euskaltzaindiak ez du orain arte arlo hori berariaz landu, baina euskarazko testuetan, hedabideetan, eskola-liburu eta entziklopedietan eta literaturan sarri erabiltzen dira, eta euskarazko estilo-liburuetan ere badira hainbat irizpide. Testu horietan guztietan nolabaiteko batasuna ageri da; beraz, arautugabea izanik ere ez zen euskararentzat arlo landugabea, zorionez. Lan honetan, munduko artelanak euskaraz adierazteko moldeak finkatzeko urrats bat egin du Euskaltzaindiak, euskara batua sortuz geroztiko bidean aurrera eginez, bide hori finkatu, irizpideak orokortu eta zalantza batzuk argitzeko.

Irizpide nagusiak adierazteaz gainera, historiaurreko eta Antzinaroko artelan nagusien zerrendak ere ematen dira arauan (150 artelan).

Zer landu da historiaurreko eta Antzinaroko artelanei buruzko arau honetan?

Artelana zer den eta zer ez den alde batera utzirik, lan honetan arkitektura (zentzu zabalean ulertuta: eraikinak, monumentuak eta ingeniartzako lan nabarmenak), eskultura eta dekorazio-arteak hartu dira kontuan, baita objektu arkeologiko garrantzitsu eta ezagunen bat ere, artelana den ala ez alde batera utzita.

Artelanak izendatzeko irizpide nagusia

Munduko artelanak izendatzeko, hizkuntza bakoitzak bere moldea erabiltzen du gehienetan; hau da, hizkuntza bakoitzak bere hitzen bidez izendatzen edo itzultzen ditu, oro har; zenbaitetan, dena dela, jatorrizko forma bere horretan, aldaketarik gabe, zabaltzen da (adibidez, erromatarrek Alemaniako Treveris hirian eraikitako **Porta Nigra** harresi-atea edo Erromako **Ara Pacis** aldarea hala izendatzen dira inguruko hizkuntza guztietan, latinez alegia). Euskaraz ere halaxe jokatuko da: munduko artelanak, printzipioz behintzat, euskaraz adierazten dira (nazioartean ere salbuespen direnak kenduta). Artelanen izendapenak, dena dela, konplexuak izaten dira maiz, izen bereziz eta izen arruntez osatuak, eta hori hartu behar da kontuan, izen bereziak leku-izenak, izen mitologikoak, pertsona-izenak... izaten baitira.

Letra larrien eta xeheen erabilera historiaurreko eta Antzinaroko eraikin eta monumentuen izenetan

Eraikin nabarmenen edo monumentu-izaera duten elementu arkitektonikoen izenak (eskultura-multzoak, adibidez) izen berezizat hartzen dira, eta letra larriz hasita idazten dira. Adibidez: **Partenoia**, **Koliseoa**, **Ramesseuma**. Testu baten barnean daudenean, letra arruntez idazten dira, ez letra etzanez.

Askotan, monumentuaren izendapena izen arrunt generiko batez eta espezifikoa batez (espezifikoa izen berezi bat edo izen [ia beti berezi] batez osatutako izenlagun bat izaten da) osatuta egoten da gehienetan (zenbaitetan, izenondo bat ere izaten da). Halakoetan, hau da irizpidea: baldin eta termino espezifikoa iraguntzen dion izen generikoa izendatzen ari den horren izaerarekin bat badator, letra xehez hasita idazten da, printzipioz, generikoa; espezifikoa, berriz, letra larriz hasita idazten da beti.

Izendapenaren osaera: **espezifikoa + generikoa**

Izendapenaren egitura: **izenlaguna** (izen berezi bat + -KO/-REN) + **izena** (+ **izenondoa**)

Adibideak: **Babiloniako lorategi esekiak**; **Herodes Atikoren odeoia**

Adibidez: **Atenasko akropolia**, **Halikarnasoko mausoleoa**, **Herodes Atikoren odeoia**, **Babiloniako lorategi esekiak**, **Lehoien atea**, **Hamabi Jainko-jainkosen aldarea**; **Babelgo dorrea**, **Hadrianoren harresia**, **Segoviako akueduktua**, **Gardeko zubia**, **Abu Simbeleko tenpluak**. Izan ere, *akropoli*, *aldare*, *mausoleo*, *tenplu*, *odeoi*, *lorategi eseki*, *dorre*, *ate* eta *aldare* termino generikoak, izendapen horietan, bat datoz adierazten dutenarekin: **Atenasko akropolia** akropoli¹ bat da; **Halikarnasoko mausoleoa** mausoleo² bat da; **Herodes Atikoren odeoia** odeoi³ bat da, **Babiloniako lorategi esekiak**

¹ **akropoli**. Antzinako Grezian, hiri gainean kokaturiko gotorlekua.

² **mausoleo**. Hilobi-monumentua.

³ **odeoi**. iz. *Arkit*. Antzinako Grezian eta Erroman, kantu eta musika emanaldietarako erabiltzen zen eraikin itxia.

lorategi esekiak ziren, **Babelgo dorrea** dorre bat zen, **Lehoien atea** ate bat da, **Hamabi Jainko-jainkosen aldarea** aldare-santutegi monumental bat zen; eta abar.

Monumentuen izendapen guztiak, baina, ez dira era horretakoak. Adibidez, **Koliseoa** ez da aurrekoak bezalakoa: Erromako anfiteatro bat da (haren jatorrizko izena, latinez, *Amphitheatrum Flavium* zen; **Koliseo** izena gerokoa da, anfiteatrotik hurbil zegoen estatua erraldoi batetik eratorria [**koloso**: estatua erraldoia]). Horregatik, **Koliseoa** izen berezia da, eta letra larriz hasita idazten da.

Bestalde, kontuan hartu behar da ezen, zenbaitetan, generikoak bakarrik aipatzen direla, espezifikoa esplizitatu gabe, elipsian utzita. Monumentuak hala izendatu ohi dira generikoa bakarrik esanda zer adierazi nahi den zalantzarik ez dagoenean, antonomasiar alezia. Erabilera antonomasikoan, generikoak letra larriz hasita idazten dira. Adibidez, **Akropolia** edo **Atenasko akropolia**; **Labirintoa** edo **Kretako labirintoa**; **Esfingea** edo **Gizako esfingea**. Dena dela, erabilera hori ezin da besterik gabe orokortu. Adibidez, **Babelgo dorrea**, **Ixtarren atea** edo **Keopsen piramidea** monumentuen kasuan, ez da hain automatikoa erabilera antonomasikoa: **Dorrea**, **Atea** edo **Piramidea** bakarrik esanda, ez dago jakiterik zer dorre, zer ate edo zer piramide adierazi nahi den, baina testuinguru mugatu eta jakin batean izan lezakete erabilera antonomasikoa. Adibidez, Erroman, oso ospetsua da **Agriparen panteoia**. Generikoa da *panteoi*⁴ hitza, baina, Erromari buruz ari garela, aski da **Panteoia** esatea, eta, antonomasiar, **Agriparen panteoia** ulertzen da (beste hainbeste gertatzen da Parisen: **Parisko panteoia** edo **Panteoia**⁵).

Badira, azkenik, osagai espezifikorik gabe osatutako izendapenak ere, zeinetan osagai generikoa izen arrunt batez eta izenondo batez osatuta baitago. Halakoetan, hala izenaren lehen letra nola izenondoarena larriz idaztea da irizpidea. Adibidez: **Piramide Makurra**, **Harresi Handia**, **Etxe Karratua** (edo **Maison Carrée**).

Letra larrien eta xeheen erabilera historiaurreko eta Antzinaroko eskulturetan

Historiaurreko eta Antzinaroko eskulturetan, sarri askotan gertatzen da egilea ezezaguna izatea, edo, egilea ezaguna izanik ere, obraren jatorrizko izena —baldin eta izenik bazuen— ezezaguna izatea. Horregatik, modu deskribatzailean izendatzen dira⁶, leku-izen bati lotuak askotan. Halakoetan, ohikoa da izendapenaren osagaiak (izenlaguna eta izena izaten dira gehienetan; eta generikoak, batzuetan, izenondoa ere izaten du) letra larriz hasita idaztea, baldin eta generikoak adierazten duena eskulturak irudikatzen duenarekin bat badator. Adibidez: **Venus Milokoa**⁷, **Elx-eko Dama**,

⁴ **panteoi**. **1** iz. Antzinako Erroman-eta, jainko guztiei eskainiriko tenplua. **2** iz. Pertsona bat baino gehiago ehorzteko egindako eraikina.

⁵ Ez da Antzinaroko obra bat, XVIII. mendeko monumentu neoklasiko bat baizik.

⁶ Antzinaroko eskulturek ez dute izaten egileak berak emandako izenburu formalik, eta modu deskribatzailean izendatu ohi dira. Horregatik, letra arruntez idatzi ohi dira, hau da, letra etzana erabili gabe, eskultura modernoan izenetan ez bezala.

⁷ Eskultura-lanak jainko-jainkosa bat irudikatzen duenean, baldin eta izendapenaren beste osagaiak eskultura nongoa den adierazten badu, izenlagun hori izenondo posizioan eman ohi da, hau da, izenaren ondotik. Adibidez, **Venus Milokoa**, **Afrodita Knidokoa**, **Nike Samotraziakoa**. Gainerakoetan, berriz, ohiko hurrenkera erabiltzen da: **Elx-eko Dama**.

Delfosko Auriga, Osunako Zezena, Samotraziako Garaipena, Farnese Zezena. Adibide horietan guztietan, izena ez da jatorrizkoa, ez da egileak emandakoa, eta eskulturak zer irudikatzen duen adierazten du generikoak: **Elx-eko Dama** dama baten eskultura da; **Delfosko Auriga** auriga baten eskultura da; **Osunako Zezena** zezen baten eskultura...

Beste batzuetan, generikoak ez du deskribatzen zer irudikatzen duen eskulturak, baizik eta objektu-mota. Halakoetan, letra xehez hasita idazten dira. Adibidez: **Saien estela, Partenoiko frisoa, Elginen marmolak, Rodasko kolosoa, Belvedereko tortsoa, Nefertitiren bustoa, Anavyssosko kurosa.** Izendapen horietan, *estela, friso, marmol, koloso, tortso*⁸, *busto* eta *kurosa*⁹ izenek eskultura-mota, —objektu-mota, alegia— deskribatzen dute; alde horretatik, ez dira aurreko saileko *dama, auriga, zezen* eta *garaipen* izenen gisakoak.

Badira, azkenik, izendapen deskribatzaile hutsak, izen espezifikorik gabeak, <izena+ izenondoa> egitura dutenak. Halakoetan, osagai generikoaren izena eta izenondoa letra larriz hasita idazten dira. Adibidez, **Obelisko Beltza, Obelisko Bukatugabea, Kore**¹⁰ **Peploduna**¹¹ (adibide horietan, izen generikoak eskultura-mota adierazten du: *obeliskoa, korea*); **Dama Txanoduna, Eskriba Eseria, Satiro Dantzaria** (adibide horietan, izen generikoak eskulturak irudikatzen duena adierazten du: *dama, eskriba*¹², *satiroa*¹³).

⁸ **tortso.** Bururik eta gorputz-adarrik gabeko estatua.

⁹ **kurosa.** Antzinateko Greziako eskultura-mota bat. Zutik dagoen gizonezko baten eskultura da.

¹⁰ **kore.** Antzinateko Greziako eskultura-mota bat. Zutik dagoen emakumezko baten eskultura da.

¹¹ **peplo.** Antzinateko Grezian, emakumeen kanpo-jantzi zabal eta lokabea, mahukarik gabea.

¹² **eskriba.** Antzinatean, kopiazailea.

¹³ **satiro.** Erdi jainko basatia, giza gorputza eta aker hankak eta adarrak dituen, haragikeriara oso emana.

ARTE MONUMENTALA

Arte minoikoa eta mizenikoa

Euskara	Gaztelania	Frantsesa	Ingelesa
Atreoren Altxorra edo Agamemnonen hilobia	tesoro de Atreo, el / tumba de Agamenón	Trésor d'Atrée, le / tombe d'Agamemnon	Treasury of Atreus, the / Tomb of Agamemnon
Festoko jauregia	palacio de Festo, el	palais de Phaistos, le	Palace of Phaistos, the
Knosoko jauregia	palacio de Cnosos, el	palais de Cnossos, le	Palace of Knossos, the
Labirintoa edo Kretako labirintoa	Laberinto de Creta, el	labyrinthe de Crète, le	Cretan labyrinth, the
Lehioen atea¹⁴	Puerta de los Leones, la	porte des Lionnes, la	Lion Gate, the

Mesopotamia

Euskara	Gaztelania	Frantsesa	Ingelesa
Babelgo dorrea	Torre de Babel, la	tour de Babel, la	Tower of Babel, the
Babiloniako lorategi esekiak	jardines colgantes de Babilonia, los	jardins suspendus de Babylone, les	Hanging Gardens of Babylon, the
Ixtarren atea	Puerta de Is(h)tar, la	porte d'Ishtar, la	Ishtar Gate, the
Urko zigurata	zigurat de Ur, el	ziggourat d'Ur, le	Ziggurat of Ur, the

Egipto

Euskara	Gaztelania	Frantsesa	Ingelesa
Abu Simbelgo tenpluak	templos de Abu Simbel, los	temples d'Abou Simbel, les	Abu Simbel temples, the
Alexandriako biblioteka	Biblioteca de Alejandría, la	bibliothèque d'Alexandrie, la	Library of Alexandria, the
Alexandriako itsasargia	Faro de Alejandría, el	phare d'Alexandrie, le	Lighthouse of Alexandria, the
Gizako piramide handia edo Keopsen piramidea	Gran Pirámide de Guiza, la / pirámide de Keops, la	grande pyramide de Gizeh, la / pyramide de Khéops, la	Great Pyramid of Giza, the / Pyramid of Cheops, the
Hatxepsuten hilobi-tenplua	templo funerario de Hatshepsut, el	temple funéraire de Hatchepsout, el	Mortuary Temple of Hatshepsut, the

¹⁴ Mizenasen dago.

Euskara	Gaztelania	Frantsesa	Ingelesa
Karnakeko tenpluak	Karnak / templos de Karnak	complexe religieux de Karnak, le / temples de Karnak / Karnak	Karnak Temple Complex / Karnak
Luxorko obeliskoa	obelisco de Lúxor, el	obélisque de Louxor, l'	Luxor Obelisk, the
Obelisko Bukatugabea	obelisco inacabado, el	obélisque inachevé, l'	unfinished obelisk the
Osireiona¹⁵	Osireion, el / Osirión, el	Osiréion, l'	Osirion, the / Osireon, the
Piramide Makurra	Pirámide Acodada, la / Pirámide Romboidal, la	pyramide rhomboïdale, la	Bent Pyramid, the
Ramesseuma¹⁶	Ramesseum, el	Ramesséum, le	Ramesseum, the
Sekhemkheten hilobi-gunea edo Sekhemkheten hilobi gunea	complejo funerario de Sejemjet, el	complexe funéraire de Sékhemkhet, le	Buried Pyramid, the / Pyramid of Sekhemkhet, the / Funerary Complex of Sekhemkhet, the
Xepsekafen mastaba edo Xepsekaf faraoiaren mastaba	mastaba de Shepseskaf, la	mastaba de Chepseskaf, la	Mastabat al-Fir'aun, the / Mastaba of Shepseskaf, the
Zoserren (edo Djoserren) piramide mailakatua	pirámide escalonada de Zoser, la	pyramide à degrés de Djoser, la	Step Pyramid of Djoser, the / Pyramid of Djoser, the

Grezia

Euskara	Gaztelania	Frantsesa	Ingelesa
Akropolia edo Atenasko akropolia	Acrópolis de Atenas, la	acropole d'Athènes, l'	Acropolis of Athens, the
Artemisaren tenplua edo Artemisiona¹⁷ edo Artemisaren Efesoko tenplua	Templo de Artemisa, el / Artemision, el	temple d'Artémis à Éphèse	Temple of Artemis, the / Artemision, the
Atena Nikeren tenplua	templo de Atenea Niké, el	temple d'Athéna Nikè, le	Temple of Athena Nike, the
Atenasko odeoia edo Periklesen odeoia	Odeón de Pericles, el / Odeón de Atenas, el	Odéon d'Athènes, l' / Odéon de Périclès, l'	Odeon of Athens, the / Odeon of Pericles in Athens, the

¹⁵ Amaierako -a ez da berezkoa: *Osireioneko, Osireionean...*

¹⁶ Amaierako -a ez da berezkoa: *Ramesseumeko, Ramesseumean...*

¹⁷ Amaierako -a ez da berezkoa: *Artemisioneko, Artemisionean...*

Euskara	Gaztelania	Frantsesa	Ingelesa
Erekteiona ¹⁸	Erecteón, el / Erecteion, el	Érechthéion, l'	Erechtheion, the / Erechtheum, the
Eumenesen estoa	estoa de Eumenes, la / Pórtico de Eumenes, el	stoa d'Eumène, la	Stoa of Eumenes, the
Halikarnasoko mausoleoa	Mausoleo de Halicarnaso, el	mausolée d'Halicarnasse, le	Mausoleum at Halicarnassus, the / Tomb of Mausolus, the
Hamabi Jainko-jainkosen aldarea	altar de los Doce Dioses, el	autel des Douze Dieux, l' / sanctuaire des Douze Dieux, le	Altar of the Twelve Gods, the/ Sanctuary of the Twelve Gods, the
Hefestiona ¹⁹	Hefestión, el / Teseion, el	Héphaïstéion, l' / Théséion, le	Temple of Hephaestus, the / Hephaesteion, the / Theseion, the
Herodes Atikoren odeoia	Odeón de Herodes Ático, el	odéon d'Hérode Atticus, l' / théâtre d'Hérode Atticus, le	Odeon of Herodes Atticus, the
Kalkoteka	Calcoteca, la	Chalcothèque, la	Chalkotheke, the
Partenoia ²⁰	Partenón, el	Parthénon, le	Parthenon, the
Partenoiko frisoa	friso del Partenón, el	frise du Parthénon, le / frise des Panathénées, le	Parthenon frieze, the
Partenoiko marmolak edo Elginen ²¹ marmolak	Mármoles de Elgin, los	marbres du Parthénon, les / marbres d'Elgin, les	Elgin Marbles, the / Parthenon Marbles, the
Pergamoko aldarea	altar de Pérgamo, el	grand autel de Pergame, le / autel de Zeus à Pergame, l'	Pergamon Altar, the
Propileoak edo Atenasko akropoliko propileoak	Propileos, los	Propylées, les	Propylaea of the Athenian Acropolis, the
Zeusen estoa	estoa de Zeus, la	stoa de Zeus, la / portillon de Zeus, le	Stoa of Zeus, the

Erromatar Inperioa

¹⁸ Amaierako -a ez da berezkoa: *Erekteioneko, Erekteionean...*

¹⁹ Amaierako -a ez da berezkoa: *Hefestioneko, Hefestionean...*

²⁰ Amaierako -a ez da berezkoa: *Partenoiko, Partenoian...*

²¹ Thomas Bruce, Elgingo kondea, britainiar diplomazialari bat izan zen. Berak eraman zituen Partenoiko marmolak Britainia Handira XIX. mendearen hasieran.

Euskara	Gaztelania	Frantsesa	Ingelesa
Alcántarako zubia	puente de Alcántara	pont d'Alcántara	Alcántara Bridge, the
Apioren bidea edo Via Appia	Vía Apia, la	voie Appienne	Appian Way, the
Ara Pacis	Ara Pacis	Ara Pacis	Ara Pacis
Bakoren tenplua	templo de Baco, el	temple de Bacchus, le	Temple of Bacchus, the
Basilica Porcia edo Portzioren basilika	basílica Porcia, la	basilique Porcia, la	Basilica Porcia, the
Basilika zisterna	Cisterna Basílica, la	Citerne Basilique, la	Basilica Cistern, the
Dioklezianoren jauregia	palacio de Diocleciano, el	palais de Dioclétien, le	Diocletian's Palace, the
Dioklezianoren termak	termas de Diocleciano, las	thermes de Dioclétien, les	Baths of Diocletian, the
Emakume Haurdunaren harria edo Hegoaldeko harria	pedra de la Mujer Embarazada / piedra del Sur	pierre de la femme enceinte, la / pierre du Sud, la	Stone of the Pregnant Woman, the / Stone of the South, the
Erromako foroa	Foro Romano, el	Forum Romain, le	Roman Forum, the
Erromako katakonbak	catacumbas de Roma, las	catacombes de Rome, les	Catacombs of Rome, the
Eszpiondarren hilobia	Tumba de los Escipiones	tombeau des Scipions	Tomb of the Scipios
Fabrizio zubia	puente Fabricio, el	pont Fabricius, le	Pons Fabricius, the
Gala Plazidiaren mausoleoa	mausoleo de Gala Placidia, el	mausolée de Galla Placidia, le	Mausoleum of Galla Placidia
Gardeko akueduktua edo Pont du Gard akueduktua	puente del Gard, el	pont du Gard, le	Pont du Gard, the
Hadrianoren harresia	Muralla de Adriano, la / Muro de Adriano, el	mur d'Hadrien, le	Hadrian's Wall, the
Hadrianoren villa	villa de Adriano / Villa Adriana, la	Villa d'Hadrien / Villa Hadrienne, la	Hadrian's Villa, the
Herkulesen dorrea	Torre de Hércules, la	tour d'Hercule, la	Tower of Hercules, the
Juliako zubia	puente Julián/Juliano, el	pont Julien, le	Pont Julien / Julian Bridge
Karakalaren termak	termas de Caracalla, las / termas Antoninas	thermes de Caracalla, les	Baths of Caracalla, the
Koliseoa edo Flaviotarren anfiteatroa	Coliseo / Anfiteatro Flavio	Colisée, l' / amphithéâtre Flavien, l'	Colosseum / Coliseum / Flavian Amphitheatre
Konstantinoren arku	arco de Constantino, el	Arc de Constantin, l'	Arch of Constantine, the

Euskara	Gaztelania	Frantsesa	Ingelesa
Konstantinoren basilika edo Aula Palatina	Aula Palatina / basilica de Constantino, la	basilique de Constantin, la	Basilica of Constantine, the / Aula Palatina
Maison Carrée edo Etxe Karratua	Maison Carrée, la / Casa Cuadrada, la	Maison Carrée, la	Maison Carrée, the
Marko Aurelioren zutabea	columna de Marco Aurelio, la	colonne de Marc-Aurèle, la	Column of Marcus Aurelius, the
Maxentzioren basilika	basílica de Majencio, la	basilique de Maxence, la	Basilica of Maxentius, the
Méridako²² erromatar zubia	puente romano de Mérida, el	pont romain de Mérida, le	Puente Romano / Roman Bridge of Mérida
Panteoia edo Erromako panteoia	Panteón de Agripa / Panteón de Roma	Panthéon, le	Pantheon, the
Piscina Mirabilis	Piscina Mirabilis	Piscina mirabilis	Piscina Mirabilis
Porta Nigra	Porta Nigra, la	Porta Nigra, la	Porta Nigra, the
Portunoren tenplua	templo de Portuno, el	temple de Portunus, le	Temple of Portunus, the / Temple of Fortuna Virilis
Segoviako akueduktua	acueducto de Segovia, el	aqueduc de Ségovie, l'	Aqueduct of Segovia, the
Trajanoren foroa	Foro de Trajano	forum de Trajan	Trajan's Forum
Trajanoren zutabea	Columna Trajana, la / Columna de Trajano	colonne Trajane, la	Trajan's Column, the
Veronako Arena edo Veronako anfiteatroa	Arena de Verona, la	Arènes de Vérone, les	Verona Arena, the
Zirku Maximoa	Circo Máximo	Cirque Maxime, le	Circus Maximus, the

ESKULTURA

Historiaurreko artea

Euskara	Gaztelania	Frantsesa	Ingelesa
Dama Txanoduna edo Venus Brassempouykoa	Dama de Brassempouy, la / Dama de la capucha, la / Venus de Brassempouy, la	Dame de Brassempouy, la / Dame à la Capuche, la	Venus of Brassempouy, the
Eivissako Dama	Dama de Ibiza, la	Dame d'Ibiza, la	Lady of Ibiza, the
Elx-eko Dama	Dama de Elche, la	Dame d'Elche, la	Lady of Elche, the / Lady of Elx, the

²² Meridako ere idatz daiteke, azenturik gabe.

Euskara	Gaztelania	Frantsesa	Ingelesa
Guisandoko Zezenak	Toros de Guisando, los	Taureaux de Guisando, les	Bulls of Guisando, the
Nebrako ortzi-diskoa	disco celeste de Nebra, el	disque de Nebra, le	Nebra sky disk, the
Osunako Zezena	Toro de Osuna, el	taureau d'Osuna, le	Bull of Osuna, the
Venus Willendorf-ekoa	Venus de Willendorf, la	Vénus de Willendorf, la	Venus of Willendorf, the

Mesopotamia

Euskara	Gaztelania	Frantsesa	Ingelesa
Basetkiko estatua	estatua de Bassetki, la	statue de Bassetki, la	Bassetki Statue, the
Gaueko Erregina edo Burney erliebea	Reina de la noche, la	plaque Burney, la	Burney Relief, the / Queen of the Night, the
Guennol Lehoi Emea	Leona Guennol, la	Lionne de Guennol, la	Guennol Lioness, the
Hammurabiren Kodea	Código de Hammurabi, el	Code de Hammurabi, le	Code of Hammurabi, the
Naram-Sin erregearen estela edo Garaipenaren estela	Estela de Naram-Sin, la / Estela de la victoria, la	stèle de victoire du roi Naram-Sin, la	Victory Stele of Naram-Sin, the
Obelisko Beltza	Obelisco negro, el	obélisque noir, l'	Black Obelisk of Shalmaneser III, the
Saien estela	Estela de los buitres, la	stèle des vautours, la	Stele of the Vultures, the
Urko estandartea	Estandarte de Ur, el	étendard d'Ur, l'	Standard of Ur, the
Uruk-eko Dama edo Warkako maskara	Dama de Warka, la / Dama de Uruk, la / máscara de Warka, la	Dame de Warka, la / Dame d'Uruk, la	Mask of Warka, the / Lady of Uruk, the

Egipto

Euskara	Gaztelania	Frantsesa	Ingelesa
Nefertitiren bustoa	busto de Nefertiti, el	buste de Néfertiti, le / tête de Néfertiti, la	Nefertiti Bust, The
Tutankamonen (edo Tutankhamonen) hilobi-maskara	máscara funeraria de Tutankamón, la / máscara de oro de Tutankamón, la	masque de Toutânkhamon, la / masque funéraire de Toutânkhamon, la	Tutankhamun's mask, the / funerary mask of Tutankhamun, the
Memnonen kolosoak	colosos de Memnón, los	colosses de Memnon, les	Colossi of Memnon, the
Eskriba Eseria	Escriba sentado, el	Scribe accroupi, le	Seated Scribe, the

Euskara	Gaztelania	Frantsesa	Ingelesa
Mikerinosen estatua kolosala	estatua colosal del rey Micerino, la	statue colossale de Mykérinos, la	colossal statue of King Menkaura (Mycerinus), the
Kefrenen estatua eseria	estatua sedente de Kefrén, la	statue assise de Khéphren, la	seated statue of Khafre, the
Narmerren paleta	Paleta de Narmer, la	palette de Narmer, la	Narmer Palette, the / Palette of Narmer, the
Rosetta harria	piedra de Rosetta, la	pierre de Rosette, la	Rosetta Stone, the

Grezia

Euskara	Gaztelania	Frantsesa	Ingelesa
Afrodita Knidokoa	Afrodita de Knido, la / Venus de Knido, la	Aphrodite de Cnide, l'	Aphrodite of Knidos, the
Agamemnonen maskara	máscara de Agamenón, la	masque d'Agamemnon, le	Mask of Agamemnon, the
Antiziterako Efeboa	Efebo de Anticitera, el	éphèbe d'Anticythère, l'	Antikythera Ephebe, the
Apolo Sauroktonoa	Apolo Sauróctono, el	Apollon sauroctone, l'	Apollo Sauroktonos, the
Apoxiomenoa	Apoxiomeno, el	Apoxyomène, l'	Apoxyomenos, the
Artemisiongo Zaldizkoa	Jinete de Artemisión, el	jockey de l'Artémision, le	Jockey of Artemision, the
Atena Partenos	Atenea Partenos	Athéna Parthénos	Athena Parthenos
Atena Promakos	Atenea Promacos	Athéna Promachos	Athena Promachos
Auxerre-ko Dama	Dama de Auxerre, la	Dame d'Auxerre, la	Lady of Auxerre, the
Barberini Faunoa	Fauno Barberino, el / Sátiro embriagado, el	Faune Barberini, le	Barberini Faun, the / Drunken Satyr, the
Belvedereko tortsoa	torso de Belvedere, el	torse du Belvédère, le	Belvedere Torso, the
Delfosko Auriga	Auriga de Delfos, el	aurige de Delphes, l'	Charioteer of Delphi, the
Diadumenoa	Diadumeno, el / Diadúmeno, el	Diadumène, le	Diadumenos, the
Diskoboloa	Discóbolo, el	Discobole, le	Discobolus, the
Diskofoa	Discóforo, el	Discophore, le	Discophoros, the / Discophorus, the
Dorifoa	Doríforo, el	Doryphore, le	Doryphoros, the

Euskara	Gaztelania	Frantsesa	Ingelesa
Farnese Zezena	Toro Farnesio, el	taureau Farnèse, le	Farnese Bull, the
Galaziar Hil Hurrena	Gálata moribundo, el	Galate mourant, le	Dying Galatian, the
Kore Peploduna	Kore del Peplo, la	korè en péplos, la	Peplos Kore, the
Kroisosen kurosa edo Anavyssosko kurosa	kuros de Creso, el / kuros de Anávisos, el	kouros de Kroisos / kouros d'Anavyssos	Kroisos Kouros, the
Laokoon eta semeak edo Laokoon taldea	Laocoonte y sus hijos / Laoconte, el	groupe du Laocoon, le	Laocoön and His Sons / the Laocoön Group
Moskoforoa	Moscóforo, el	Moschophoros, le	Moschophoros, the
Partenoiko metopak	metopas del Partenón	métopes du Parthénon, les	metopes of the Parthenon, the
Riaceko brontzeak edo Riaceko gerrariak	Bronces de Riace / Guerreros de Riace, los	guerriers de Riace / bronzes de Riace, les	Riace bronzes, the / Riace Warriors
Rodasko kolosoa	coloso de Rodas, el	colosse de Rhodes, le	Colossus of Rhodes, the
Samotraziako Garaipena edo Nike Samotraziakoa	Victoria de Samotracia, la / Niké de Samotracia, la / Victoria alada de Samotracia, la	Victoire de Samothrace, la	Winged Victory of Samothrace, the / Nike of Samothrace, the
Satiro Dantzaria	sátiro danzante de Mazara del Vallo, el	satyre de Mazara del Vallo, le / Satyre dansant, le	Dancing Satyr of Mazara del Vallo, the
Satiro Geldia	Sátiro en reposo, el	Satyre au repos, le	Resting Satyr, the / Leaning Satyr, the
Venus Eskilinokoa	Venus Esquilina, la	Vénus de l'Esquilin, la	Esquiline Venus, the
Venus Kapitolinokoa	Venus Capitolina, la	Vénus Capitoline, la / Aphrodite du Capitole, l'	Capitoline Venus, the
Venus Medicikoa	Venus de Médici, la	Vénus de Médicis, la	Venus de' Medici, the / Medici Venus, the
Venus Milokoa	Afrodita de Milo, la / Venus de Milo, la	Vénus de Milo, la	Aphrodite of Milos, the / Venus de Milo, the
Zeusen Olinpiako estatua	estatua de Zeus en Olimpia, la	statue de Zeus à Olympie, la	Statue of Zeus at Olympia, the

Erromatar Inperioa

Euskara	Gaztelania	Frantsesa	Ingelesa
Augusto Prima Portakoa	Augusto de Prima Porta	Auguste de Prima Porta	Augustus of Prima Porta
Barlettako kolosoa	Coloso de Barletta, el	colosse de Barletta, le	Colossus of Barletta, the
Borghese kratera	vaso Borghese, el	vase Borghese, le	Borghese Vase, the
Bruto Kapitolinokoa²³	Bruto Capitolino	Brutus Capitolin	Capitoline Brutus
Farnese Herkules	Hércules Farnesio, el	<i>Hercule Farnèse, l'</i>	Farnese Hercules, the
Frantziako Kameu Handia	Gran Camafeo de Francia, el	Grand Camée de France, le	Great Cameo of France, the
Gonzaga kameua	camefeo Gonzaga, el	Camée des Gonzague, le	Gonzaga Cameo, the
Hizlaria	Orador, el	<i>Arringatore, l' / Orateur, l'</i>	Orator, the
Junio Basoren sarkofagoa	sarcófago de Junio Bas(s)o, el	sarcophage de Junius Bassus, le	Sarcophagus of Junius Bassus, the
Konstantinoren kolosoa	Coloso de Constantino, el	colosse de Constantin, le	Colossus of Constantine, the
Likurgoren kopa	copa de Licurgo, la	coupe de Lycurgue, la	Lycurgus Cup, the
Ludovisi tronua	Trono Ludovisi, el	trône Ludovisi, le	Ludovisi Throne, the
Neronen kolosoa	Coloso de Nerón, el	colosse de Néron, le	Colossus of Nero, the
Portland pegarra	Vasiya de Portland, la	vase Portland, le	Portland Vase, the
Portonaccioko sarkofagoa	sarcófago de Portonaccio, el	sarcophage de Portonaccio, le	Portonaccio sarcophagus
Tetrarken eskultura edo Lau Tetrarkak	Tetrarcas, los	statue des quatre tétrarques, la / portrait des quatre tétrarques, le	Portrait of the Four Tetrarchs, the
Warren kopa	copa Warren, la	coupe Warren, la	Warren Cup, the

²³ Erromako Kapitolinoko museoetan dagoelako izendatzen da horrela estatua.

ZERRENDA GUZTIAK BATERA

Euskara	Gaztelania	Frantsesa	Ingelesa
Abu Simbelgo tenpluak	templos de Abu Simbel, los	temples d'Abou Simbel, les	Abu Simbel temples, the
Afrodita Knidokoa	Afrodita de Knido, la / Venus de Knido, la	Aphrodite de Knide, l'	Aphrodite of Knidos, the
Agamemnonen maskara	máscara de Agamenón, la	masque d'Agamemnon, le	Mask of Agamemnon, the
Akropolia edo Atenasko akropolia	Acrópolis de Atenas, la	acropole d'Athènes, l'	Acropolis of Athens, the
Alcántarako zubia	puente de Alcántara	pont d'Alcántara	Alcántara Bridge, the
Alexandriako biblioteka	Biblioteca de Alejandría, la	bibliothèque d'Alexandrie, la	Library of Alexandria, the
Alexandriako itsasargia	Faro de Alejandría, el	phare d'Alexandrie, le	Lighthouse of Alexandria, the
Antiziterako Efeboa	Efebo de Anticitera, el	éphèbe d'Anticythère, l'	Antikythera Ephebe, the
Apioren bidea edo Via Appia	Vía Apia, la	voie Appienne	Appian Way, the
Apolo Sauroktonoa	Apolo Sauróctono, el	Apollon sauroctone, l'	Apollo Sauroktonos, the
Apoxiomenoa	Apoxiomeno, el	Apoxyomène, l'	Apoxyomenos, the
Ara Pacis	Ara Pacis	Ara Pacis	Ara Pacis
Artemisaren tenplua edo Artemisiona²⁴ edo Artemisaren Efesoko tenplua	Templo de Artemisa, el / Artemision, el	temple d'Artémis à Éphèse	Temple of Artemis, the / Artemision, the
Artemisiongo Zaldizkoa	Jinete de Artemisión, el	jockey de l'Artémision, le	Jockey of Artemision, the
Atena Nikeren tenplua	templo de Atenea Niké, el	temple d'Athéna Nikè, le	Temple of Athena Nike, the
Atena Partenos	Atenea Partenos	Athéna Parthénos	Athena Parthenos
Atena Promakos	Atenea Promachos	Athéna Promachos	Athena Promachos
Atenasko odeoia edo Periklesen odeoia	Odeón de Pericles, el / Odeón de Atenas, el	Odéon d'Athènes, l' / Odéon de Périclès, l'	Odeon of Athens, the / Odeon of Pericles in Athens, the
Atreoren Altxorra edo Agamemnonen hilobia	tesoro de Atreo, el / tumba de Agamenón	Trésor d'Atrée, le / tombe d'Agamemnon	Treasury of Atreus, the / Tomb of Agamemnon

²⁴ Amaierako -a ez da berezkoa: *Artemisioneko, Artemisionean...*

Augusto Prima Portakoa	Augusto de Prima Porta	Auguste de Prima Porta	Augustus of Prima Porta
Auxerre-ko Dama	Dama de Auxerre, la	Dame d'Auxerre, la	Lady of Auxerre, the
Babelgo dorrea	Torre de Babel, la	tour de Babel, la	Tower of Babel, the
Babiloniako lorategi esekiak	jardines colgantes de Babilonia, los	jardins suspendus de Babylone, les	Hanging Gardens of Babylon, the
Bakoren tenplua	templo de Baco, el	temple de Bacchus, le	Temple of Bacchus, the
Barberini Faunoa	Fauno Barberino, el / Sático embriagado, el	Faune Barberini, le	Barberini Faun, the / Drunken Satyr, the
Barlettako kolosoa	Coloso de Barletta, el	colosse de Barletta, le	Colossus of Barletta, the
Basilica Porcia edo Portzioren basilika	basílica Porcia, la	basilique Porcia, la	Basilica Porcia, the
Basilika zisterna	Cisterna Basílica, la	Citerne Basilique, la	Basilica Cistern, the
Basetkiko estatua	estatua de Basetki, la	statue de Basetki, la	Basetki Statue, the
Belvedereko tortsoa	torso de Belvedere, el	torse du Belvédère, le	Belvedere Torso, the
Borghese kratera	vaso Borghese, el	vase Borghese, le	Borghese Vase, the
Bruto Kapitolinokoa²⁵	Bruto Capitolino	Brutus Capitolin	Capitoline Brutus
Dama Txanoduna edo Venus Brassempouykoa	Dama de Brassempouy, la / Dama de la capucha, la / Venus de Brassempouy, la	Dame de Brassempouy, la / Dame à la Capuche, la	Venus of Brassempouy, the
Delfosko Auriga	Auriga de Delfos, el	aurige de Delphes, l'	Charioteer of Delphi, the
Diadumenoa	Diadumeno, el / Diadúmeno, el	Diadumène, le	Diadumenos, the
Dioklezianoren jauregia	palacio de Diocleciano, el	palais de Dioclétien, le	Diocletian's Palace, the
Dioklezianoren termak	termas de Diocleciano, las	thermes de Dioclétien, les	Baths of Diocletian, the
Diskoboloa	Discóbolo, el	Discobole, le	Discobolus, the
Diskoforoa	Discóforo, el	Discophore, le	Discophoros, the / Discophorus, the
Doriforoa	Doríforo, el	Doryphore, le	Doryphoros, the
Eivissako Dama	Dama de Ibiza, la	Dame d'Ibiza, la	Lady of Ibiza, the

²⁵ Erromako Kapitolinoko museoetan dagoelako izendatzen da horrela estatua.

Elx-eko Dama	Dama de Elche, la	Dame d'Elche, la	Lady of Elche, the / Lady of Elx, the
Emakume Haurdunaren harria edo Hegoaldeko harria	pedra de la Mujer Embarazada / piedra del Sur	pierre de la femme enceinte, la / pierre du Sud, la	Stone of the Pregnant Woman, the / Stone of the South, the
Erekteiona²⁶	Erecteón, el / Erecteion, el	Érechthéion, l'	Erechtheion, the / Erechtheum, the
Erromako foroa	Foro Romano, el	Forum Romain, le	Roman Forum, the
Erromako katakonbak	catacumbas de Roma, las	catacombes de Rome, les	Catacombs of Rome, the
Eskriba Eseria	Escriba sentado, el	Scribe accroupi, le	Seated Scribe, the
Eszpiondarren hilobia	Tumba de los Escipiones	tombeau des Scipions	Tomb of the Scipios
Eumenesen estoa	estoa de Eumenes, la / Pórtico de Eumenes, el	stoa d'Eumène, la	Stoa of Eumenes, the
Fabrizio zubia	puente Fabricio, el	pont Fabricius, le	Pons Fabricius, the
Farnese Herkules	Hércules Farnesio, el	Hercule Farnèse, l'	Farnese Hercules, the
Farnese Zezena	Toro Farnesio, el	taureau Farnèse, le	Farnese Bull, the
Festoko jauregia	palacio de Festo, el	palais de Phaistos, le	Palace of Phaistos, the
Frantziako Kameu Handia	Gran Camafeo de Francia, el	Grand Camée de France, le	Great Cameo of France, the
Gala Plazidiaren mausoleoa	mausoleo de Gala Placidia, el	mausolée de Galla Placidia, le	Mausoleum of Galla Placidia
Galaziar Hil Hurrena	Gálata moribundo, el	Galate mourant, le	Dying Galatian, the
Gardeko akueduktua edo Pont du Gard akueduktua	puente del Gard, el	pont du Gard, le	Pont du Gard, the
Gaueko Erregina edo Burney erliebea	Reina de la noche, la	plaque Burney, la	Burney Relief, the / Queen of the Night, the
Gizako piramide handia edo Keopsen piramidea	Gran Pirámide de Guiza, la / pirámide de Keops, la	grande pyramide de Gizeh, la / pyramide de Khéops, la	Great Pyramid of Giza, the / Pyramid of Cheops, the
Gonzaga kameua	camafeo Gonzaga, el	Camée des Gonzague, le	Gonzaga Cameo, the
Guennol Lehoi Emea	Leona Guennol, la	Lionne de Guennol, la	Guennol Lioness, the
Guisandoko Zezenak	Toros de Guisando, los	Taureaux de Guisando, les	Bulls of Guisando, the

²⁶ Amaierako -a ez da berezkoa: *Erekteioneko, Erekteionean...*

Hadrianoren harresia	Muralla de Adriano, la / Muro de Adriano, el	mur d'Hadrien, le	Hadrian's Wall, the
Hadrianoren villa	villa de Adriano / Villa Adriana, la	Villa d'Hadrien / Villa Hadrienne, la	Hadrian's Villa, the
Halikarnasoko mausoleoa	Mausoleo de Halicarnaso, el	mausolée d'Halicarnasse, le	Mausoleum at Halicarnassus, the / Tomb of Mausolus, the
Hamabi Jainko-jainkosen aldarea	altar de los Doce Dioses, el	autel des Douze Dieux, l' / sanctuaire des Douze Dieux, le	Altar of the Twelve Gods, the/ Sanctuary of the Twelve Gods, the
Hammurabiren Kodea	Código de Hammurabi, el	Code de Hammurabi, le	Code of Hammurabi, the
Hatxepsuten hilobi-tenplua	templo funerario de Hatshepsut, el	temple funéraire de Hatchepsout, el	Mortuary Temple of Hatshepsut, the
Hefestiona²⁷	Hefestión, el / Teseion, el	Héphaïstéion, l' / Théséion, le	Temple of Hephaestus, the / Hephaisteion, the / Theseion, the
Herkulesen dorrea	Torre de Hércules, la	tour d'Hercule, la	Tower of Hercules, the
Herodes Atikoren odeoia	Odeón de Herodes Ático, el	odéon d'Hérode Atticus, l' / théâtre d'Hérode Atticus, le	Odeon of Herodes Atticus, the
Hizlaria	Orador, el	Arringatore, l' / Orateur, l'	Orator, the
Ixtarren atea	Puerta de Is(h)tar, la	porte d'Ishtar, la	Ishtar Gate, the
Juliako zubia	puente Julián/Juliano, el	pont Julien, le	Pont Julien / Julian Bridge
Junio Basoren sarkofagoa	sarcófago de Junio Bas(s)o, el	sarcophage de Junius Bassus, le	Sarcophagus of Junius Bassus, the
Kalkoteka	Calcoteca, la	Chalcothèque, la	Chalkotheke, the
Karakalaren termak	termas de Caracalla, las / termas Antoninas	thermes de Caracalla, les	Baths of Caracalla, the
Karnakeko tenpluak	Karnak / templos de Karnak	complexe religieux de Karnak, le / temples de Karnak / Karnak	Karnak Temple Complex / Karnak
Kefrenen estatua eseria	estatua sedente de Kefrén, la	statue assise de Khéphren, la	seated statue of Khafre, the
Knososko jauregia	palacio de Cnosos, el	palais de Cnossos, le	Palace of Knossos, the

²⁷ Amaierako -a ez da berezkoa: *Hefestioneko, Hefestionean...*

Koliseoa edo Flaviotarren anfiteatroa	Coliseo / Anfiteatro Flavio	Colisée, l' / amphithéâtre Flavien, l'	Colosseum / Coliseum / Flavian Amphitheatre
Konstantinoren arkua	arco de Constantino, el	Arc de Constantin, l'	Arch of Constantine, the
Konstantinoren basilika edo Aula Palatina	Aula Palatina / basilica de Constantino, la	basilique de Constantin, la	Basilica of Constantine, the / Aula Palatina
Konstantinoren kolosoa	Coloso de Constantino, el	colosse de Constantin, le	Colossus of Constantine, the
Kore Peploduna	Kore del Peplo, la	korè en péplos, la	Peplos Kore, the
Kroisosen kurosa edo Anavyssosko kurosa	kuros de Creso, el / kuros de Anávisos, el	kouros de Kroisos / kouros d'Anavyssos	Kroisos Kouros, the
